



Curriculuma	Joxe Luix Agirretxe Mitxelena
--------------------	-------------------------------

Joxe Luix Agirretxe Mitxelena (Lezo, 1969). Euskal Filologian lizentziatua (Deustuko Unibertsitatea 1994). Euskararen irakaskuntzan jardun zen AEKn (1989-1999). Lezoko Oroitzene AEK Euskaltegiaren sortzaileetakoa da. Euskara elkarten mugimenduaren baitan herrietako hedabideen sorreran eta kudeaketan jardun zen (1995-2003); Lezoko Orratx! Kultur Elkartean, Orratx! aldizkarian eta Oarsoaldeko Oarso Telebistan. Topagunea Euskara Elkarten Federazioaren Hedabide Sailaren buru eta zuzendaritzako kide ere izan zen (2000-2002). Oarsoaldeko Hitza egunkariaren sortzaileetakoa eta Oartzualdeko Hedabideak, S.L.ren Administrazio Kontseiluko kidea da 2003az geroztik. 1999ko ekainaz geroztik Oarsoaldea Garapen Agentziaren Euskara Sailaren arduraduna da.